

## ADI!

Zerga egutegi hau 2025eko abenduan egin da. Kontuan eduki beharko duzu araudian harrezkero egindako edozein aldaketa

## Gai orokorrak

### Ogasun bulegoak

Hauk dira Arabako Foru Aldundiaren bulegoen helbide eta telefonoak:

- Helbide elektronikoa: **www.araba.eus**
- **Gasteiz:** Samaniego kalea, 14 - 01008 — Tel 945 18 18 18  
Posta elektronikoko helbidea: **hacienda@araba.eus**
- **Laudio:** Alberto Acero plaza, 8, 01400 — Tel 946 72 54 83  
Posta elektronikoko helbidea: **ollodiohacienda@araba.eus**
- **Guardia:** San Juan plaza. Samaniegoren etxea - 01300 — Tel 945 60 01 35  
Posta elektronikoko helbidea: **ohaciendalaguardia@araba.eus**

**Derrigorrezko Dirubilketa:** Probintzia plaza, 13 - 01001, Gasteiz — Tel: 945 25 44 55  
Posta elektronikoa: **recaudacionejecutiva@araba.eus**

### AURREZ AURREKO ARRETA ematean, lehenetsuna izango dute hitzordua eskatzen dutenek

Honela eska daiteke **hitzordua**:

- Interneten bidez: **https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua**
- Telefonoz: **945 18 15 10**

### Jendearentzako ordutegia

**Oro har:** 8:15etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

- Jendearentzako ordutegi berezia, **Gasteizko bulegoan:** 9:15etik 12:30era, urtarrilaren 5ean, abuztuaren 4an, 6an, 7an eta irailaren 14an (Olarizu eguna).
- Jendearentzako ordutegi berezia, **Guardiako bulegoan:** 9:15etik 12:30era, ekainaren 23an, 25ean, 26an eta 29an.
- Jendearentzako ordutegi berezia, **Laudioko bulegoan:** 9:15etik 12:30era, martxoaren 27an eta abuztuaren 25ean, 26an, 27an eta 28an.

### Zerga argibideetarako telefonoa

Zalantzaren bat edukiz gero edo zergei buruzko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, **945 18 15 55** telefonora dei dezakezu 8:00etatik 14:30era bitartean, astelehenetik ostiralera.

### Zerga argibideetarako posta elektronikoko helbidea

Zergei buruzko galderaren bat edukiz gero, posta elektronikoko helbide honetara bidal dezakezu: **consultasfiscales@araba.eus** edo web orri honen bidez: **https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ogasunarekin-harremanetan-jarri**

## Borondatezko ordezkariak

Borondatezko ordezkariak arautzen dute apirilaren 13ko 15/2010 Foru Dekretuak (2010eko apirilaren 30eko ALHAO, 46. zk.), zeina aldatu baitzuten otsailaren 13ko 6/2018 Foru Dekretuak (2018ko otsailaren 21eko ALHAO, 22. zk.) eta martxoaren 16ko 11/2021 Foru Dekretuak (2021eko martxoaren 24ko ALHAO, 33. zk.), eta azaroaren 23ko 52/2021 Foru Dekretuak (2021eko abenduaren 1eko ALHAO, 137. zk.).

Borondatezko ordezkariaren bidez zergapekoak gaitu egin dezake konfiantzazko pertsona edo profesional bat, bere izenean izapideak eta jardunak egin ditzan, bere eskubideak balia ditzan, edo Ogasunarekiko bere zerga betebeharrak bete ditzan. Beraz, borondatezko ordezkariak ordezkatuaren izenean dihardu eta egiten duen guztia eta egindako guztiaren ondorioak ordezkatuaren gain uzten ditu.

Borondatezko ordezkarietan mailak daude, zergadunak Ogasunarekin egin beharreko izapideen araberrakoa. Hain zuzen ere, **1. maila** BEZaren, atxikipenen, sozietateen gaineko zergaren eta abarren aitortpenak aurkezteko da. **2. maila**, honako hauetarako: zerga datuak kontsultatzeko eta errenta eta ondare aitortpena aurkezteko; ziurtagiriak eskatzeko; erroldako datuak kontsultatzeko eta errolda ereduak aurkezteko; fakturazio erregistroak bidaltzeko eta kontsultatzeko, horiek elektronikoki hornituz egoitzan balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak eramateko; kontabilitateko idazpenen erregistroak bidaltzeko eta kontsultatzeko, horiek elektronikoki hornituz egoitzan fabrikazioko zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea eramateko, eta TicketBAI betebeharra materialki betetzeko. **3. maila** idazkiak, errekurtsioak etab. aurkezteko da. Eta, azkenik, **4. maila** posta bidezko jakinarazpenak eta jakinarazpen telematikoak jasotzeko eta jaso izana adierazteko da.

## Aldizkako zerga betebeharrak

Zerga zein den eta zergapekoa nor den, aldizkako autolikidazioak aurkezteko betebeharra, oro har, honelakoa izan daiteke::

- **Urtekoa:** banakako enpresaburuak, profesionalak, sozietateak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, oro har.
- **Hiru hilean behingoa:** banakako enpresaburuak, profesionalak, sozietateak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, oro har.
- **Hilean behingoa:** banakako enpresaburuak, profesionalak, sozietateak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, baldin eta haien eragiketa bolumena, 2025ean, **6.010.121,04** euro baino gehiago izan bada (enpresa handiak); balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak, baldin eta erregistro liburuak izan behar badituzte, nahitaez, zerga administrazioaren egoitza elektronikotan, edo Leihatila Bakarreko Araubidean, Inportazio Araubidean (IOSS), inskribatuta badaude, eta 2025ean **6.000.000** eurotik gorako urteko aurrekontua duten administrazio publikoak.

## Lineako izapideetarako BAK gakoa (pertsona fisikoentzat bakarrik)

BAK gakoa doako identifikazio bide bat da, erakunde publikoekin izapideak Interneten bidez egin ahal izateko. Gako horren bidez, zerga aitortpenak egin eta bidali (errenta, BEZa, atxikipenak, errolda, etab.), zerga ziurtagiriak lortu, zergei buruzko datuak edo errolda datuak lortu, borondatezko ordezkariak izapidetu eta bestelakoak egin ahal izango dituzu.

Alabaina, jakinarazten dizugu BAK gakoarekin ezinezkoa dela jakinarazpen elektronikoak ikustea.

BAK gakoa oso modu errazean eta doan lortzen da, inora joan beharrik gabe.

Hona sartu besterik ez duzu: [www.araba.eus/bak/index\\_eu](http://www.araba.eus/bak/index_eu)

## Zerga aitortpenak telematikoki bidaltzea

Zerga aitortpena telematikoki aurkeztu beharko dute honako zergapeko hauek:

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek, baita sozietateen gaineko zergaren zergadunek ere, baldin eta Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorritik kasuan kasuko aitortpenak Arabako Foru Aldundian aurkezteko betebeharra badute.  
Jarduera ekonomikoaren kontzeptua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako zehaztutakoa da.
2. Hirugarrenen zerga aitortpenak aurkezteko baimena duten profesionalek, baldin eta altan badaude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren mendeko Baimenen Erregistroan, apirilaren 20ko 50/2001 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik.

**Betebehar** hori zerga aitortpen hauei aplikatzen zaie:

**Errolda aitortpenak, urteko laburpenak eta informazioa emateko aitortpenak:** 036-037-170-171-172-173-179-180-181-182-184-187-188-189-190-192-193-194-195-196-198-199-20R-231-232-234-235-236-238-270-280-289-290-291-296-345-318-346-347-349-379-480-553-720-781-782 eta 848.

Ez zaie aplikatuko 036 eta 037 errolda ereduari, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzen bada, ez eta 037 ereduari ere, baldin eta hori modu presentzialean eta Arabako Foru Ogasunaren laguntzaz betetzen bada.

**Autolikidazio ereduak:** 110-111-115A-117-123-124-126-128-130-200-202-203-210-211-213-216-217-220-222-223-230-237-303-310-322-353-369-390-391-410-411-430-490-560-581-583-587-592-604 eta 763

Azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduak arautua.

Laguntza programetako zerga ereduak aitortpen guztiak telematikoki bidali ahalko dira, egoitza elektronikoaren bidez.

Zergadun partikularrek, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, eta haien borondatezko ordezkariak **Interneten bidez osatu eta bidal ditzakete** eredu hauek: 110-111-115A-117-123-124-126-128-130-202-210-211-216-217-222-230-231-237-303-310-322-353-379-390-391-410-411-430-480-490-553-560-581-583-587-592-604-763-172 eta 173.

**Honako hau da aitortpenak telematikoki aurkezteko prozedura orokorra:**

- a) Aitortpena aurkeztu duen pertsona AFAko egoitza elektronikora konektatu behar da, dela Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako laguntza programa baten bitartez, dela zuzenean [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoaren bitartez  
AFaren egoitza elektronikora sartzeko, ziurtagiri digital bat edo hartarako gaitzen den beste edozein sistema behar da (BAK eta BAKQ pertsona fisikoentzat soilik dira identifikazio baliabide baliabideak). Helbide honetan kontsulta dezakezu nola sartu egoitza elektronikoa: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>
- b) Aitortpena aurkeztu ondoren, aitortpena eta, hala badagokio, atxikitako dokumentuak edo fitxategiak aurkeztu izana justifikatuko duen agiri bat sortuko da; horrez gain, zein data eta ordutan aurkeztu den ere jasoko da agirian.

**Laguntza tekniko eskatzeko telefonoa:** 945 56 90 28

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era. Ordutegia 24:00etara arte luzatuko da honako egun hauetan, zerga aitortpenak aurkezteko epea amaitzen delako: otsailaren 2an, apirilaren 27an, ekainaren 25ean, uztailearen 27an eta urriaren 26an.

**Laguntza tekniko eskatzeko posta elektronikoko helbidea:** diputaciondigital@araba.eus

## Etiketak

Paperean aurkezten diren zerga aitortpenetan (baldin eta ez badago aitortpenak telematikoki aurkezteko betebeharririk), nahitaez itsatsi behar dira identifikazio etiketak. Etiketen ereduak ALHAOn argitaratu zen 1996ko abenduaren 4an (139. zk.).

Behar izanez gero, eska itzazu, nahi duzun bidea erabiliz:

- Interneten bidez: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/etiketak-eskatzea>
- Telefonoz: **945 18 15 55**
- Posta elektronikoko bidez: [hacienda@araba.eus](mailto:hacienda@araba.eus)
- Aurrez aurrez, Foru Ogasunaren bulegoetan. IFZren jatorrizkoa edo fotokopia erakutsi beharko duzu.

Lehenengo hiru bideak erabiltzea gomendatzen dizugu, Ogasunaren bulegoetara alferrikako joan-etorriarik ez egiteko. Lehen hiru bide horietakoren bat erabiliz gero, etiketak zergadunaren zerga egoitzara bidaliko dira.

## Laguntza programak (Deskargatu doan Interneten bidez)

Hona hemen zer laguntza programa eskura daitezkeen <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/laguntza-programa> helbidean:

- Zerga eredu hauen laguntza programa: 110, 111, 115-A, 123, 179, 180, 182, 184, 190, 193, 20R, 200, 203, 220, 223, 232, 303, 310, 347, 349, 390, 391 eta 720.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien aldi baterako elkartasun zergaren programa: 100 eta 714 ereduak.
- Errolda eredu hauen lineako laguntza programa: 009, 036 eta 037 ereduak.
- Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren laguntza programa: 650, 651, 652, 653, 654 eta 655 ereduak.
- Fabrikazioaren gaineko zerga berezien laguntza programa (EMCS/SIANE), administrazio agiri elektronikoak egin eta jasotzeko.
- Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren laguntza programa: 600U, 600R, 600M, 600P, 600S eta 630 ereduak.
- Zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren laguntza programa.

## Zerga arloko inprimakiak

Interneten doan eskura daitezke, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/zerga-ereduen-bilatzailea>  
Horrela ez duzu Ogasunaren bulegoetara joan beharko.

## Ordaintzeko bideak

Dirubilketan laguntzen duten finantza erakundeetako edozeinen bidez egin daiteke ordainketa. Gaur egun, hauek dira finantza erakunde laguntzaileak:

Kutxabank, Deutsche Bank, Santander, Sabadell, Bankinter, Bankoa Grupo Abanca, BBVA, Targobank, Ibercaja, CaixaBank, Caja Rural de Navarra, Laboral Kutxa, Cajamar Caja Rural.

Interneten bidez bidaltzen diren autolikidazioetan, ordainketa banku helbideratze edo ordainketa gutunaren bidez egiten da. Ordainketa gutuna dirubilketan laguntzen duten aipatutako finantza erakundeetako edozeinetan ordain daiteke.

Ordainketak Bizum edo MiPago Wallet mugikorreko aplikazioen bidez egiteko aukera ere badago. Funtzionalitate berri horren bidez, modu seguru, erraz eta jasangarrian ordain daitezke Foru Aldundi honen eskumeneko zergak, tasak edo zerbitzu publikoak.

## Identifikazio fiskaleko zenbakia

Pertsona fisiko edo juridiko guztiek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen diren erakunde nortasun gabekoek identifikazio fiskaleko zenbaki bat (IFZ) eduki behar dute, eta nahitaez erabili behar dute zergen arloko harremanetan eta zergetan eragina eduki dezaketenetan, hala xedatzen baitu uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa).

**Pertsona fisikoen, pertsona juridikoen eta gainerako erakundeen** IFZk Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen ditu. Horretarako, **HITZORDUA** eskatu behar da Interneten bidez (<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>) edo 945 18 15 10 telefonoan. Honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- **14 urtetik beherako pertsona fisikoen legezko ordezkariak** 009 errolda eredua aurkeztu behar dute (hemen eskuragarri: [www.araba.eus](http://www.araba.eus)), urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan eskatzen den dokumentazioarekin batera (ALHAO, 19. zk., 2009ko otsailaren 13koa).
- **Espainiako estatuan bizi ez eta AIZ eskuratzeko betebeharririk ez duten pertsona fisikoek** 006 errolda eredua aurkeztu behar dute, urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan eskatzen den dokumentazioarekin batera (ALHAO, 2009ko otsailaren 13a, 19. zk.).
- **Pertsona juridikoen, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek, jabeen erkidegoek eta gainerako entitateek** 036 edo 037 errolda eredua aurkeztu behar dute, urtarrilaren 28ko 41/2009 Foru Aginduan eskatzen den dokumentazioarekin batera (ALHAO, 2009ko otsailaren 13koa, 19. zk.).

Notarioak gaiturik daude merkataritza sozietateen behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia Interneten bidez eskatu eta lortzeko.

## Zerga ziurtagiriak, zerga aitortzen kopiak eta ordainketa zatikapenak

1.- Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek, bai eta sozietateen gaineko zergaren zergadunek ere, baldin eta Ekonomia Itunean ezarritakoaren arabera aitortzen Arabako Foru Aldundian aurkeztu behar badituzte, **egoitza elektronikoan eskuratu behar dituzte honako ziurtagiri eta eskaera hauek:**

- a) Zerga betebeharrak egunean dituztela jasotzen duten ziurtagiriak (azpikontratatistak, zerga egoera, dirulaguntzak, administrazio publikoen kontratuak).

- b) Beste ziurtagiri batzuk (hiri edo landa izaerako ondasun higiezinak eta lurzati zedulak -ziurtagiri deskribatzaile eta grafiko zaharrak-) balio erantsiaren gaineko zergaren errolda, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, errolda egoera, BEZaren Foru Arauaren 84.Bat.2.g artikulua araberako birsaltzailea izatea).
- c) Ordainketa zatikapenak.

**Aipatutako zerga ziurtagiriak unean bertan lortzen dira** egoitza elektronikoaren bidez, helbide honetan: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/zerga-ziurtagirien-eskaerak>. Halaber, **zerga aitortzen kopiak** lor daitezke egoitza Elektronikoaren bidez "Banakako aitortzen aurkeztea"edo "Errenta eta ondarea - Banakakoak" izapideen barnean, "Aitortzen kontsulta" atalean.

2.- Jarduera ekonomikorik garatzen ez duten pertsona fisikoek aurreko paragrafoan aipatutako ziurtagiriak eta eskaerak lortu ahal izango dituzte:

- Egoitza elektronikoaren bidez, 1. puntuan azaldutako prozeduraz baliatuz.
- Esteka honen bidez: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/zerga-ziurtagirien-eskaerak>, ziurtagiri elektronikoa eduki beharrik gabe, galdetegi bat betez. Hala eskatuz gero, ziurtagiria etxean jasotzen da.
- **Telefonoz** (egunean zaudela egiaztatzen duten agiriak bakarrik, Interneten bidez egoitza elektronikoa eskatzera behartuta ez bazaude): 945 18 15 55. Ziurtagiria postaz bidaliko da eskatzailearen zerga egoitzara.
- **002 ereduaren bidez** (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/modelo-002-solicitud-de-certificados> webgunean eskura daiteke); posta elektronikoz ([hacienda@araba.eus](mailto:hacienda@araba.eus)) bidal daiteke, edo Foru Ogasunaren bulegoetara eramane (ereduarekin batera IFZren fotokopia aurkeztu behar da).

Postaz bidaliko dira interesdunaren zerga egoitzara, Ogasunaren bulego batean jaso nahi dituela adierazi ezean.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 59/2009 Foru Dekretuaren 10.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (2009ko uztailaren 27ko ALHAO, 85 zk.), ezin izango da ziurtagiririk eskuratu administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko duen eskubidea preskribatuta duten zerga betebeharrekin loturiko datuei buruz.

## Jakinarazpen elektronikoa

Elektronikoki jakinarazteko zerbitzua urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuak arautzen du, eta 2020ko irailaren 7an jarri zen indarrean.

Horren ondorioz, jakinarazpen elektronikoen paperean jasotzen ziren jakinarazpenak ordezkatu dituzte.

Sozietateen gaineko zergaren zergadunek edo haien ordezkariak administrazio komunikazioak edo jakinarazpenak **elektronikoki jaso behar dituzte**.

**Jakinarazpen elektronikoa** egoitza elektronikoa daude eskuragarri, "Nire jakinarazpenak" atalean. Horretarako, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa onartzen den identifikazio bitarteko elektronikoa bat eduki behar da. Hemen duzu informazioa: [www.araba.eus](http://www.araba.eus); egoitza elektronikoa; "Nola sartu". Alabaina, jakinarazten dizugu BAK ziurtagiriarekin ezinezkoa dela jakinarazpen elektronikoa eskuratzeko.

**Oso garrantzitsua:** jakinarazpena eskuragai jartzen denetik hamar egun pasatzen badira hura AFAn egoitza elektronikoa jaso gabe, jakinarazpenari uko egin zaiola ulertuko da eta, ondorioz, jakinarazpena egintzat joko da legezko ondorio guztietarako.